


HAU JOLASA BAINO GEHIAGO DA


Hezitzaileek
euskara
sustatzeko
eskuliburua:
estrategiak
eta tresnak



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Argitaraldia: 2017ko uztaila

Internet: www.euskarabidea.eus

Argitaratzailea:

Navarroako Gobernua / Gobierno de Navarra. Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

Inprimatzailea:

Arabako Foru Aldundiko Moldiztegi Zerbitzua

Legezko Gordailua:

VI 541-2017

Liburuxka honek argitalpen hau izan du oinarri:

Haur eta gazteen jardueretarako hezitzaileentzako gida

© Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava

© Iñaki Eizmendi Arsuaga eta Itziar Larzabal Bengoetxea, EBETE hizkuntza zerbitzuak

Arabako Foru Aldundiari eta EBETE hizkuntza zerbitzuei haien lana argitalpen honetarako baliatu ahal izateko eman duten erraztasuna eskertu nahi diegu.



AURKIBIDEA

Aintzinsolasa: gida honen abiaburua eta helburua 5

1. AISIAN HEZTEN 9

2. GAZTE NAFAR EUSKALDUNAK 13

3. OINARRIZKO IRIZPIDEAK 19

3.1 Dekalogoia 19

3.2 Teknikak erabili baino lehen 21

3.3 Erabileraren inguruko 5 gogoeta 27

3.4 Zer egin beharko genuke? 29

3.5 Zer ez genuke egin beharko? 33

4. JARDUEREN EZAUGARRIETARA EGOKITUTAKO PROPOSAMENAK 37

4.1 Kirol entrenatzailea naiz 37

4.2 Kultura jarduetarako irakaslea naiz 41

Antzerki irakaslea naiz 41

Dantza irakaslea naiz 43

Musika irakaslea naiz 45

4.3 Aisialdiko hezitzailea naiz 48

Ludotekan aritzen naiz 48

Udalekuetan aritzen naiz 50

Gaztelekuan aritzen naiz 52

4.4 Jantokiko hezitzailea naiz 55





5. PRAKTIKARAKO BALIABIDEAK ETA AZKEN GOMENDIOAK 63

5.1 Hizkuntza errutinak.....	63
Eguneroko errutinak.....	63
Abestiak eta leloak dituzten jolasak.....	66
5.2 Hizkuntza jolasak.....	68
Jolas aktiboak.....	69
Jolas lasaiak.....	72
5.3 Euskara ardatz.....	75
Irratsaioa, aldizkaria, etab.....	75
Antzerkiak.....	76
Karaokeak.....	78
Ipuinak.....	78
Asmakizun jolasak.....	79
Jarduera jarraituak.....	80
5.4 Beste eraginbide batzuk.....	81
Hizkuntza paisaia.....	81
Musika.....	82
Kultura kontsumoa.....	82
5.5 Azken gomendioak.....	84

6. ERANSKINAK 87

7. BIBLIOGRAFIA..... 91





AINTZINSOLASA: GIDA HONEN ABIABURUA ETA HELBURUA

Eskuetan duzun gida honek Nafarroako Gobernuaren *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* du funtsa. Aipatu Plan Estrategikoan, euskararen erabilera sustatzeko eta hiztun berrien ikaste prozesua azkartzeko, esparru estrategikotzat jotzen da haur eta gazteen eskolaz kanpoko sozializazioa. Haurrak eta nerabeak euskal hiztun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotu nahi da eskolaz kanpoko hezkuntza arloetan, aisialdi eta kirol jardueretan batik bat, haur eta gaztetxoak euskaraz berez, aise eta eroso komunika daitezen.

Euskararen I. Plan Estrategikoa gauzatzean, Euskarabidea–Euskararen Nafar Institutuak, gida honen bidez, Nafarroako haur eta nerabeen euskararen erabilera pizteko baliabideak paratu nahi ditu hezitzaileen eskuetan.

Gida honek Arabako Foru Aldundiak eta EBETE hizkuntza zerbitzuen enpresak apailatutako materialak ditu oinarri eta bi erakunde horiei eskertu behar diegu egindako lanak gure esku utzi izana, eskuzabaltasunez eman baitziguten Nafarroara ekartzeko, moldatzeko eta zabaltzeko aukera.

Gida hau aisialdian aritzen diren hezitzaileei zuzenduta dago. Jarduera elebakarren ikuspegitik idatzita badago ere (euskara hutsean dinamizaturakoa), gainontzeko aisialdi ereduetan ere aplikatzekoak diren teknikak eta estrategiak aurki ditzakezue.

Arrunt baliagarria suerta daiteke eguneroko zenbait egoeratan teknikak eta estrategiak eskura izatea, jarduera bat euskaraz antolatzeak ez baitu esan nahi gaztetxoek euskarazko hizkuntza portaerei eraginkorki eragiten zaienik. Eta errealitatean murgildurik gaudenean, erantzun egokiak ematea zaila da maiz. Hori dela eta, programatzea oso garrantzitsua da.

Lehen atalean aisialdia –gaztetxoek euskaraz egin dezaten– zer arlo estrategikoa den aipatzen da.





Bigarren atalean, gazte nafarren informazio soziolinguistikoa ematen da.

Hirugarren atalean, oinarrizko irizpideak nahiz praktika egokiak bildu ditugu; eta programatzean erabiltzea komeni den DEKALOGO modukoa aurkeztu dugu.

Laugarren atalean, jardueren ezaugarrietara egokitutako proposamenak ikusiko ditugu.

Bosgarren atalean erabiltzen ahal diren baliabideak eta zenbait gomendio dituzue. Horiek proposamenak besterik ez dira, eta tokian tokiko behar eta nahietara moldatzea da egokiena. Horretarako, zuen irudimena eta sormena ezinbestekoak izanen dira jolasak aldatzeko, birsortzeko... Hori bai, tresna hauek modu egokian, aurrean dugun gazte taldearen arabera, antolatzea komeni da —zer eta zertarako egiten ari garen argi izanik—, hezitzaile lanean eraginkorrak izateko.

Baliabideak lau multzotan sailkatu ditugu: hizkuntza errutinak lantzekoak, hizkuntza jolasak (betiko jolasen aldaerak, hizkuntzaren erabilera txertatua dutenak), euskara ardatz duten jarduerak eta, buruenik, kontuan hartu beharreko beste eraginbide batzuk.

Azkenik, jarraipen eta ebaluazio fitxak jaso dira eranskinetan eta edukietan sakontzeko bibliografia bildu dugu.





1. AISIAN HEZTEN

Eskola-orduz kanpoko jardueretan euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea estrategikotzat jotzen da, baina, zergatik? Zein da aisialdiaren garrantzia? Eskola-orduz kanpoko jarduera gehienak gustukoak izan ohi dira haur eta gazteentzat: lagunartean gozatzen dute, ikasgeletatik kanpo, bizitasun handiko jarduerak izaten dira, eta, maiz, jolas-tokietan egiten direnak, ludikoak. Ludikotasuna adimen emozionalari estuki atxikirik dago, eta ikasten diren gauzak lotu behar zaizkio horri, esanguratsuak eta arrakastasuak izan daitezen.

Haurrek eta gazteek ongi pasatzea nahi dugu, baina balio jakin batzuk ikastea eta barneratzea ere bai: elkarrekiko errespetuz jokatzeko, materiala zaintzea, arauak kontuan hartzea, bizimodu osasungarria balioestea eta abar. Haur eta gaztetxoak jostetan ibiltzea, adieraztea, haztea nahi dugu, baita ongi jaten ikastea eta elkarrekin zintzo jokatzeko ere. Jostetan ari direnean, zaintza egiten dugu, baina haiekin jostatu ere egiten gara, eta beren garapenean lagundu ere bai. Beraz, balio batzuetan hezteko ahalegina ere egiten dugu, eta horiek bat egiten dute gizartearen eta eskolaren balioekin.

Zaintzaileak edo begiraleak gara, baina gehiago ere bai. Nola ikusten dugu geure burua? Ez izan zalantzarik: hezitzaileak gara. Inondik ere, hori dugu egin-kizun garrantzitsua.

Eta euskara? Euskara irakasleen eta gurasoen helburuetako bat da, eta, hezitzaileak garen heinean, gure ardura ere bada. Baina, jakina, euskararen erabilera behar bezala sustatzeko baliabideak eta tresnak behar dira.

Gida honen bidez, helburu horretan lagundu nahi dizuegu, lagungarriak izan da-kizkizuekeen aholkuak eta proposamenak zuen eskura jarritz.

Zergatik sustatu euskararen erabilera gaztetxoaren artean?

Haur eta gazteek gutxienez hiru hizkuntza ikasten dituzte. Ikastetxeen helburuetako bat hori da, baita guraso askoren nahia ere. Baina hizkuntzak ongi ikasteko eta erraztasuna izateko, maiz erabili behar dira, eta askok, euskaraz ikasi arren, ez dute eskolaz kanpo hitz egiteko aukera handiegirik.





Hainbat haur eta gaztek beren arteko harremanetan erabiltzen duten hizkuntza gaztelania izaten da, eta, askotan, aisialdiko jardueretan, hezitzaileok ez dugu euskararen erabileran behar adinako aurrerapausoa ikusten. Horregatik, lehenik eta behin, garrantzitsua da gure aisialdia garatzen den testuingurua ezagutzea eta ongi ulertzea. Hori ahalbidetu nahian, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoak emandako azken datuak paratu ditugu labur-labur hurrengo puntuan. Gazte nafar euskaldunen egungo errealitatea hauxe dela esan dezakegu hortaz:

- Eremu euskaldunean izan ezik, gehienen etxeko hizkuntza gaztelania da.
- Gure hiri, herri eta auzoetan euskararen erabilera handitu den arren, oraindik ere testuinguru gehienetan ez da oso handia: lagun artean, familiar, kirolean, zerbitzuetan...
- Gaztelania hutsean egindako sare sozialak dira gehien erabiltzen direnak, bai eta erdarazko telebista, egunkariak, irratia, liburuak, erreferenteak eta musika ere.
- Askok, hezkuntza formalerako erabiltzen den hizkuntzatzat dute euskara, eta dikotomia hauek sortzen dira: euskara=eskola, euskara=betebeharra...
- Gure ingurua gero eta eleaniztunagoa da. Kultura aniztasuna izan behar dugu kontuan.

Bada, esan dezagun aisialdia, ezbairik gabe, hezkuntza formaletik kanpo hezteko dagoen tresna garrantzitsua eta ahaltsua dela. Egiten diren ekintza dibertigarrien eta desberdinen bidez, ongi pasatzeaz gaina, hainbat balio eta praktika egoki transmiti baitaitezke eta horretan hezitzaileok egiteko funtsezkoa dugu.






2. GAZTE NAFAR EUSKALDUNAK

2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak ekarri ditugu hona, Nafarroako euskaldunen kopuruari buruzko daturik berrienak baitira. Horiek guztiak ehunekotan adieraziak ikusiko dituzu. Gazteen (16 eta 24 urte bitartekoen) gaineko hizkuntza datuek egungo gazteek euskararekin duten harremana begiratu batez ikusteko aukera emanen digute.


Gazte euskaldunen bilakaera: adin tarteei erreparatuz gero, azpimarratzekoa da gazte euskaldunen kopuruak nabarmen egin duela gora azken 25 urteotan: % 10etik % 25,8ra.

Nafarroako euskaldunen bilakaera adinaren arabera

1991



2016




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea.



Gazte euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko: euskaraz jakinik ere gazte euskaldun gehienek gaztelaniaz euskaraz baino errazago egiten dute. Halako elebidunei erdaldun elebidunak erraten die Inkesta Soziolinguistikoa. Nafarroan zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago dira horrelako hiztunak. 16-24 urteko euskaldunen artean, % 62ra ailegatzen dira.


Nafarroako euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko adinaren arabera



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea.

Erraztasuna euskaraz egiteko, eremuen arabera: Euskararen Foru Legeak ezarritako hizkuntza eremuei erreparatuta, gazte euskaldunen artean deigarria da eremu euskalduneko talde handi batek, % 43,2k, aiseago egiten duela euskaraz erdaraz baino; eremu mistoan ia % 9ra iristen da, eta eremu ez-euskaldunean ez da ia-ia aintzat hartzekoa.


Nafarroako gazte euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko, eremuen arabera



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea.

Gazte nafarren lehen hizkuntza, eremuen arabera: ondoko irudian ikusiko dugunez, eremu euskaldunean euskara (soilik edo gaztelaniarekin batera) da gazte gehienek lehen hizkuntza. Gainerako eremuetan ez da hala gertatzen.


Nafarroako gazteen lehen hizkuntza, eremuen arabera



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea.

Gazteen euskararen erabilera: hurrengo egoera hauek aurkituko dituzu Nafarroako gazteen artean, eta horietan eragitea egokituko zaizu euskara era naturalagoan erabil dezaten.

Nafarroako gazte euskaldunen hizkuntza erabilera



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea.




Badira hainbat aldagai erabilerari eragiten diotenak: hiztunen kopurua, hiztunek duten hizkuntza gaitasuna edo erraztasuna eta hiztunek euskaraz hitz egiteko dituzten aukerak, besteak beste. Horregatik, ezinbestekoa da esparru desberdinetan (kalean, etxean, lanean edo ikastetxeetan...) euskal solaskiderik izatea, hau da, familian, lagunen eta auzokideen artean euskaraz aritzen denik izatea.

Aurkeztutako datuei erreparatuz gero, honakoa ondorioztatzen ahal dugu: haurren eta gaztetxoaren artean gero eta euskaldun gehiago dira. Gazte horiek nola bilakatu diren euskaldun aztertzean, gehienak euskarazko eskolatzearen —D ereduaren— bidez ikasi dutela hizkuntza ikusiko dugu.

ESKOLATZE-DATUAK

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza osorik (3–12 urte bitarte) harturik, publikoan nahiz kontzertatuan, irakaskuntzako ikasereduek 1988tik 2017ra izan duten bilakaera taula honetan ikus daiteke:

Nafarroako hezkuntza ereduaren bilakaera (1988-2017).
Haur eta Lehen Hezkuntza, publikoa eta kontzertatua



Iturria: ALDASORO, E. 2017



2015-2016 ikasturtean 3 urteko haurren % 28,5ek D ereduari hasi zuten Haur Hezkuntza; 2016-2017 ikasturtean aldiz, % 29,54k hasi zuten.





3. OINARRIZKO IRIZPIDEAK

3.1 DEKALOGOA

Dinamikekin hasi baino lehen, hamar puntuz osatutako dekalogoia proposatu nahi dizuegu. Hau zuen jarduerako edota udalekuetako euskal ordenantza moduko zerbait izan liteke.

Itsatsi hezitzaileen gelan!

- 1. Umeek erosoan sentitzen diren hizkuntzan hitz egiteko joera izanen dute. Hori ez da ez ona ez txarra.
- 2. Hezitzaileok eredu eta erreferente gara.
- 3. Hizkuntzetan erraztasuna izateko, erabilera ezinbestekoa da.
- 4. Euskara bizipen positiboekin lotu behar dugu.
- 5. Hezitzaileok euskararen erabilera sustatu nahi dugu.
- 6. Helburu nagusia euskara maiz eta gustura erabiltzen laguntzea da.
- 7. Programazioan, kontuan hartu testuingurua eta errealitatea.
- 8. Ekintza ez-gidatueta ere euskara susta daiteke.
- 9. Ezinezkoa da une oro euskara sustatzen jardutea. Ekintzak eta momentuak ohartuki edo kontzienteki aukeratu egin behar dira.
- 10. Norbanako askok gauza txikiak eginez, emaitza handiak lortzen ahal dituzte. Eutsi goiari!



3.2 TEKNIKAK ERABILI BAINO LEHEN... PROGRAMATU!!!

Euskararen erabilera sustatzeko ezinbestekoa da gure programazioan tokia izatea. Horretarako, teknikak erabili baino lehen programazio taula egitea gomendatzen dugu. Lana errazteko asmoz, eredu bat txertatu dugu.

Arestian esan bezala, garrantzitsua da teknikak era kontzientean eta koherentean erabiltzea. Ezinbestekoa da egiten dugunaz kontzienteak izatea eta aldez aurretik zer egin nahi dugun eta nola bideratuko dugun erabakitzea. Oso zaila da aldiro euskara sustatu nahian aritzea, haurrak aspertu egingen genituzke eta guk txoraturik bukatuko genuke. Horregatik, garrantzitsua da estrategiaz eta jardueraz gainera maiztasuna eta intentsitatea neurtzea. Izan ere, aldez aurretik erabaki daiteke euskararen inguruan noiz, nola, norekin... egingen dugun. Erabaki beharra dago.

Inguruaren azterketa egin (diagnosia), gutxieneko helburuak finkatu: errealak, sinpleak eta lortzeko modukoak. Hortik abiatuta, estrategiak erabiltzea gomendatzen dizuegu (hezitzaile *berritsua* izatea, kasu). Azkenik, estrategia horiek bideratzeko tresnak eta jarduerak aukeratu, intentsitatea eta maiztasuna erabakitzeko.

- **TEKNIKAK / ESTRATEGIAK:** oinarrizko estrategia **HEZITZAILE BERRITZUA** izatea da. Hau da, hitz egiteko aukera maiz eta ugari sortzea, hiztun bakarraren hizketaldiak edo lagun gehiagoren arteko elkarriketak (argi izan behar dugu hezitzaile berritsua izatea ez dela asko hitz egitea, baizik eta haurren arteko elkarriketetan parte hartzea, laguntzea, errefortzu positiboak eta ereduak ematea).
- **DIAGNOSIA.** Testuingurua aztertzea —hizkuntzaren ikuspegitik ere— ezinbestekoa da; horrek egiten den guztia baldintzatuko baitu. Badira kontuan hartu beharreko irizpide batzuk:
 - **Gunea euskalduna den edo ez.** Udalekua antolatuko den ingurunea aztertzea hizkuntzaren ikuspegitik, hau da: non gauden, gune euskalduna den, zer-nolako aukerak eskaintzen dituen...

◦ **Taldea nolakoa den**

- Hezitzaileak: nolakoa da hezitzaile taldea? Prestakuntza jaso dugu? Zer-nolako euskara maila dugu? Zer-nolako sentsibilizazioa?...
- Parte-hartzaileak: zer-nolako haurrak daude? Zein hizkuntza-eredutatik datoz? Nondik? Zer dakite?...
 - ▶ Zein hizkuntzatan egiten dute haiek bakarrik daudenean?
 - ▶ gurekin hitz egitean?
 - ▶ gu aurrean gaudenean, beren artean?
 - ▶ gu elkarriketako parte garenean?
 - ▶ guk laguntzen diegunean?
- Familiak: euskaldunak dira? Etxean euskaraz egiten dute? Zergatik apuntatu dituzte?...
- **Baliabideak.** Zer-nolako baliabideak ditugu? Gidak, jolasak, musika, bideoak... Jarduerak/udalekuak egiten diren tokiko euskarazko eskaintza.

- **GUTXIENeko HELBURUA.** Gutxieneko helburua edo helburuak finkatzea komeni da. Sinpleak, lortzen errazak eta, batez ere, errealak izatea da egokiena. Kontuz helburuen artean *euskara sustatzea* txertatzearekin; izan ere, horrelako helburu batekin ezin ditugu argi zehaztu zein izanen diren dinamikak, zein izanen den iraupena, zer jokabide izan behar dugun, nola ebaluatuko dugun...

- **IRAUPENA.** Zenbateko iraupena duen jarduerak edo udalekuak.

- **MAIZTASUNA / INTENTSITATEA.** Dekalogoaren 9. puntuan aipatu bezala, ezinezkoa da une oro euskara sustatzen jardutea eta, hortaz, ekintzak eta momentuak ohartuki edo kontzienteki aukeratu egin behar

dira. Hau da, egunean zein jardueratan sustatuko dut bereziki euskara? Zer hizkuntza elementu? Zer modutan? Zer eredu emanen dut?

- **TRESNAK / JARDUERAK.** Helburuak lortzeko erabiliko diren jarduerak, proposamenak...
- **EBALUAZIOA.** Helburuak eta maiztasuna neurtzeko modukoak diren heinean, oso garrantzitsua da modu desberdinetako adierazleen bidez egitea ebaluazioa (haurrak, hezitzaileak, ingurua, ekintzak, iraupena edo maiztasuna...). Helburua lortu dugu? Egokiak izan dira denbora, intentsitatea eta maiztasuna? Zein izanen da hurrengo pausoa?...



Aipatu dugunaren erakusgarri, hona adibide hau adin txikiko haur talde baten-
tzako prestatua:

DIAGNOSIA	Beren artean erdaraz egiten dute, eta gurekin ere gehienetan erdaraz aritzen dira. Taldean gutxi dira etxe-giro euskalduna dutenak.
GUTXIENKO HELBURUA(K)	Guri euskaraz hitz egin diezagutela.
IRAUPENA	MAIZTASUNA / INTENTSITATEA
7 egun	Egunero hizkuntza jolas sinple bat egingo dugu eta otordu guztietan hizkuntza errutina parte hartzaileak gehituko ditugu. Errutinaren egitura eta eduki linguistiko zehaztu behar ditugu eta hurrei emanen dizkiegun formulak eta hizkuntza ereduak garbi izan, gero ebaluatu nahi izanen badugu.
TEKNIKAK / ESTRATEGIAK	Euskaraz ongi egiten dutenei ahalegintzeko eskatuko diegu eta gaitasun mugatua dutenei lagunduko diegu (esaldi ez-zuzenak birformulatzen, esaldiak bukatzen laguntzen, aldioro ereduak ematen, hitz egin dezatela bultzatzen, ongi esanak saritzen...). Errefortzu positiboak ematen saiatuko gara eta, batez ere, hezitzaile berriak izanen gara, hau da, solasaldi anitz piztuko ditugu
TRESNAK / JARDUERAK	- Hizkuntza errutinak: harrera guztietan errutina linguistikoa erabiliko dugu eta denbora ez gidatua daudenean 15 minutuz elkarriketetan sartuko gara. - Hizkuntza jolas sinpleak: bonba!, autotokeak...
EBALUAZIOA	Helburua: guri euskaraz hitz egin diezagutela. Helburua bete den ikusteko adierazleak: - Harreretan euskaraz erantzuten dute. - Lehen hitza euskaraz egiten digute. - Gurekin elkarriketa osoa euskaraz egiten saiatzen dira. - Hizkuntza jolasetan euskaraz parte hartzen dute (guk gidatua).



Jarraian aurkituko duzuen taulan, era sinple-sinplean eta diagnosi baten ondoren atera daitezkeen **talde tipologiak** agertzen zaizkizue.

Garrantzitsua da jardueren antolatzaileei begira (instituzioak, elkarteak, aisialdi taldeak...) parte-hartzaileen ezaugarri/beharren artean, besteak beste, hizkuntzari ere erreparatzea. Hau da, interesgarria izanen litzateke bestelako gaiei buruzko galderekin batera (alergiarik edo gaixotasunik baduten, igeri egiten badakiten), galdetzea era berean, zein hizkuntzatan ikasten duten, euskara ulertzen duten edota euskara erabiltzen duten, eta informazio hori guztia izena emateko fitxetan jasotzea.

Taula aztertu baino lehen, hiru ohar:

- Denak euskal hiztunak direla jartzen dugunean, euskaraz jakiteaz gainera euskaraz bizi eta egiteko gaitasuna duten pertsonen ari gara.
- Taldekatzea, modu orokorrean jasota dago, lan eginen duzuen taldean pertsona adina errealitate egonen baitira.
- Eragite esparru bakoitzerako proposatutako teknikak errealitateak sortu-tako beharren arabera moldatzen ahal dira. Hau da, "denak euskaldunak" atalean, euskara ardatz dituzten teknikak proposatzen dira, baina horrek ez du esan nahi gainontzekoak baliagarriak edo egokiak ez direnik, baizik eta horietan jarri behar genukeela arreta handien.

	Guztiak aritzen dira euskaraz	Gehienak aritzen dira euskaraz	Gutxi batzuk aritzen dira euskaraz	Haurren batek ez daki euskaraz
DIAGNOSIA	Euskara da gehien aritzen den hizkuntza	Euskara aritzen da baina erdarak indar handiago du	Euskara ez da ia aritzen, erdara da nagusi	Taldea euskalduna da baina baten batek (edo bakar batzuek) ez du euskaraz ulertzen/egiten
TEKNIKAK	-Euskara ardatz	- Hizkuntza jolasak - Hizkuntza errutinak - Euskara ardatz	- Hizkuntza errutinak - Hizkuntza jolas sinpleak	- Hizkuntza errutinak - Gorputz adierazpena





3.3 ERABILERAREN INGURUKO 5 GOGOETA

Erabilera arautuko dugu?

Ez da komenigarria erabilera arautzea, hau da, *“hemen beti euskaraz egin behar duzue”* edo *“badakizue ekintza hauek euskaraz direla, ezta?”*. Izan ere, euskara gustura eta ahal den gehien erabiltzeko bidean lagundu nahi diegu *“euskara ez da araua, aprobetxa dezakegun aukera baizik”*. Erabilera arautzen badugu, haien esku utziko dugu ardura, eta, horrela, lagundu baino gehiago, behartu egingen ditugu.

Zenbait dinamika/egoera zehatzetan aldiz, erabilera arau daiteke, betiere honako aldagaiak kontuan izanik: araua betetzen ez badute, zein izanen da ondorioa? Beteko dugu ondorio hori? Eta, zailtasunik ikusiz gero, nola lagunduko diegu? Erantzunak ongi definitzen baditugu eta zalantzarik ez badugu, tarte horretan arauak txertatzea egokia izan daiteke. Adibidez, *Galdera-erantzun* jolasean, erantzunak euskaraz izan arte ez dira ontzat hartuko.

Komeni da akatsak zuzentzea?

Ez da beharrezkoa, ez eta komenigarria ere gehienetan. Behin eta berriz zuzentzeak komunikazioa etetea dakar eta ez dira ziur sentituko, deseroso egonen dira segur aski, horren ondorioz, haur mutuak izanen ditugu.

Aldiz, euskara maiz —akatsekin bada ere— erabiltzen laguntzen badiugu, errazagoa izanen zaie hizkuntza maila hobetzea (eskolan ere lagunduko diete). Gaizki erabiltzen dutenean hezitzaile *berritsu* gisa aritzea komeni da, esaldi traketsak zuzen birformatuz, eredia emanez, galderak eginez eta betiere, erabilera piztuz. Bestalde, ohiko akatsak zuzentzeko dinamikak, errutinak, txartelak... prestatzen ahal ditugu, esamolde zuzenak erakusteko.

Hezitzaileon artean euskaraz egitea kostatzen zaigu

Ez ahaztu erreferente eta eredu garena. Erdaraz egiten badugu, sinesgarritasuna galduko dugu haurren zein gazteen artean. Gure ardura eta konpromisoak betetzeko gai izan behar dugu eta, beste hainbat zehar-lerro zaindu behar ditugun moduan (hezkidetza, kulturartekotasuna...), hezitzaileon artean eus-



kararen erabilera ere zaindu beharra dago. Hezitzaileon artean euskara sustatzeko jolas edo teknikaren bat erabiltzea ez dago gaizki, betiere guztion artean adostutakoa bada. Esaterako, hezitzaile batek erdarara jotzen badu, besteek "pistatxo" hitza esan dezakete, euskarara jotzeko gogoraraziz.

Komeni da erabilera sustatzeko kanpaina/dinamika bereziren bat egitea?

Ez da oso gomendagarria. Alde batetik, berriz ere haurren eta gazteen esku uzten dugulako euskararen erabileraren ardura, eta bestetik, ziurrenik nola-baiteko saria lortzeko —edo zigorrik ez izateko— baizik ez dutelako euskaraz eginen. Kanpainen bidez ez diegu laguntzen hizkuntza errutinak txertatzen. Hobe da erabilerari begirako ekintza zehatzak proposatzea; adibidez, haur eta gazteentzat erreferente den euskaldun bat gonbidatzea, bertso-saioren bat antolatzea... Gogoratu euskara bizipen positiboek lotzea dela gure helburua.

Ez du(te) euskaraz egin nahi: "No me gusta el euskera"

Haur eta gazteen hizkuntza ohiturak ulertu behar ditugu. Haur eta gazte askok gaztelanirako joera dute: ez da moda kontua eta normaltzat hartu behar dugu. Askorentzat gaztelania ama-hizkuntza izateaz gain, inguruneak (auzoak, hiriak...) nagusiki eskaintzen eta indartzen dien mintzaira da. Euskaraz ikasirik ere, erraztasun eta aberastasun handiagoa dute gaztelaniaz. Beraz, testuingurua kontuan hartzen badugu, elkarrekin hizketan edota jostetan ari direnean oso normala da joera hori. Ez da ona edo txarra, nahiko logikoa den egoera baizik.

Horregatik da garrantzitsua hezitzaileon jarrera: euskara maiz erabiltzen laguntzea eta erabilera hori errefortzu positiboekin lotzea. Argi izan helburua gurea dela, hezitzaileona. Haurrek eta gazteek ez dute erabilerarekiko interes berezirik izan behar. Guk lagundu behar diegu ahalik eta modu natural, eroso eta atseginenean euskaraz egiten.

Erabilera indartu nahi dugu eta euskararekin harreman handia eta positiboa eskaini nahi diegu. Horretarako estrategia egokiak erabili behar dira, eta badaude erabili behar ez genituzkeen estrategia batzuk ere. Horrelako estrategiekin ez da lortzen euskara gehiago egitea eta gainera, hizkuntzarekin sortzen den harremana ez da positiboa.

3.4 ZER EGIN BEHARKO GENUKE?

- ✓ **Begiratu lortutakoari**, eta ez mugei edo zailtasunei.
- ✓ Haur eta gaztetxoei **beti egin euskaraz**. Ez kontuan hartu haiek nola erantzuten dizueten, zuek beti euskaraz. Oinarrizko pausoa da hori.
- ✓ Ahal duzuen guztietan haiekin batera aritu, eta **beraien solasaldietan parte hartu**: elkarriketa berriak sortu, haiekin jostetan hasi... Horrela, haiekin mintzatuz elkarriketa hori euskarara bidera dezakezue.
- ✓ **Errefortzu positiboak eman**: ohikoa ez den egoera batean euskaraz entzuten ditugunean hizkuntza portaera hori indartu. Gure jarrera errefortzu positiboak ematea bada, haur eta gazteak motibatuko ditugu, eta hala, maizago izanen dugu errefortzu horiek emateko aukera.
- ✓ Argi izan gure helburua: gaztetxoek euskaraz gehiago egitea nahi dugu. Horretarako biderik onena gure eragina da: **solasaldi ugari sortzea, elkarriketetan parte hartzea eta haiei mintzaraztea**. Gu gara eredu.
- ✓ Hortaz, egoeraren arabera, bitartekari izan eta elkarriketak zuzendu, gaizki esanak zuzen birformulatu, eredua eman; edo, besterik gabe, elkarriketan sartu euskarara erakarri arte.

Elkarrizketetan eragin. Lagundu gurekin eta beren artean euskaraz egin dezaten.

Gurekin

- Yo no quiero jugar a pillar
- *Ez duzu harrapaketan jostatu nahi?*
- Ez
- *Ez dakit ba...*
- *Ez duzu deus egin nahi? Edo ez duzu harrapaketan jostatu nahi?*
- Ez dut harrapaketan jostatu nahi.
- *Konforme! Orduan zertan?*
- *Lasterketetan?*
- Ederki, lasterketetan!

- Pásame el balón.
- *Baloia nahi duzu?*
- Bai.
- *Esan, ba: Pasa baloia!*
- Pasa baloia!
- *Tori, ba. Orain zuk beste bati pasa.*

- *Gogoratu larunbatean partida izanen dugula*
- Larunbatean? ¿A qué hora?
- *Zein ordutan? Lauretan. Etorriko zara, ezta?*
- Bai.
- *Badakizu non den?*
- Ez.
- *Ea asmatzen duzun. Galderak egin behar dizkidazu.*
- Urruti dago?
- Ez, nahiko hurbil.

Gure laguntzaz

- ¡Me han empujado al agua!
- Te has caído
- No, me has empujado
- *Zer gertatu da?*
- Me ha empujado y me he caído al agua
- *Bultzatu zaitu?*
- Bai. Bultzatu nau!
- *Bultzatu duzu?*
- Ez! Erori da.
- Gezurra!
- *Tira, lasai. Begira! Orain ikusiko dugu nork egiten duen uretara saltorik handiena. Gora goraaa, banoa!!*
- Gora gora, banoa!!

- *Zer gertatu da?*
- Ha sido falta.
- No, ha sido buena.
- *Zer gertatu da?*
- Que ha sido falta.
- Ha dado en la chapa.
- Txapa izan da?
- Ez!
- *Nola izan da, ba?*
- No ha sido falta.
- *Ez da falta izan?*
- *Bada esaiozu: "ez da falta izan, ona izan da".*
- Ez da falta izan, ona izan da.
- Falta izan da. Nik ikusi.
- *Zuk ikusi duzu falta izan dela? Begira, hoberena buelta egitea izanen da.*

Gure eraginez

- Los de Santiago se van a hacer puenting
- Yo no voy ni loco, qué chungo!
- *Puentina egitera doaz? Nora?*
- Murillora uste dut
- *Eta zer, ez zarete animatuko?*
- ¡Qué dices! Ni ez!
- Ba, ongi egonen da goitik behera salto egitea.
- Bai, zera! Eta gero hor, zintzilik...
- Nik egin egingen nuke
- *Animatu, ba!*
- ...

- Casi me caigo en la última valla
- Ya lo he visto. ¡Qué escapada!
- *la erori zara?*
- Azken hesia ukitu, eta ia erori naiz.
- *A zer ikara, ezta?*
- Bai, ba. Nik ikusi dut, eta uste nuen eroriko zela!
- Baina normalean ez zait gertatzen.
- Niri ere ez, oso ongi egiten dugu.
- *Eta gero eta azkarrago!*

Gurekin

- No me sale
- Zer da "no te sale"
- Hori, ba? Ezin duzu?
- Esan, ba, ezin duzula!
- Ez. Ezin dut.
- Zertan ez duzu asmatzen?
- Pues con este acorde. Beti gaizki egiten dut.
- Akorde hau zaila egiten zaizu?
- Begira, egin proba honela.
- A bail Honela ongi.
- Primeran.

Gure laguntzaz

- Nola egin duzue?
- Yo salgo de allí y ella
- de esa puerta
- ¡Pero yo prefiero salir de aquí!
- Ea, ba. Zuk nahiago duzu hemendik atera?
- Bai.
- Eaiozu, ba! "Nahiago dut hemendik atera".
- Nahiago dut hemendik atera.
- Eeezz! Handik hobe da!
- Zer iruditzen zaizue proba egiten badugu?
- Ados!

Gure eraginez

- ¡Qué bonito te ha quedado el dibujo!
- ¿Sí? Eskerrik asko!
- Zer? Marrazki polita, ezta?
- Bai, ba. Askok gustatzen zait.
- Erakutsiko diozu nola egin duzun?
- Noski! Begira, aurrena.
- Primeran! Zuk lagundu eta ni hemen ibiliko naiz laguntzeko.

Ahalegina eskatu

Aizue, zergatik ez gara saiatzen guztion artean euskaraz egiten? Nik lagunduko dizuet. Ez izan dudarik, denon artean lortuko dugu!

Badakit zuetako batzuentzat gaztelaniaz egitea errazagoa dela, baina hemen/egunotan euskaraz aritu nahi dugu. Erronka gisa hartuko dugu eta saiatuko gara? Ni laguntzeko prest nago!

Errefortzu positiboak eman

Zer poza ematen didan zuek euskaraz adi-tzeak! Benetan! Gero eta hobeki egiten duzue gainera, zer ongi! Segi horrela!

Aizu! Zuri lehen euskaraz aritzea gehiago kostatzen zitzaizun. Sumatzen da bai, ahalegina egin duzula. Ongi!



3.4 ZER EZ GENUKE EGIN BEHARKO?

- ✓ Ez esan *egin euskaraz!* edo antzeko esaldirik.
- ✓ Ez kargu hartu guk euskaraz egitea nahiko genukeen egoera batzuetan haiek egiten ez badute: ez sentiarazi errudun.
- ✓ Hizkuntza kontuetan behintzat, ez zigorrik eta ez mehatxurik. Ez dugu ezer aurreratuko.
- ✓ Ez zuzendu: komunikatzen badira, horrek balio du. Ez eman garrantzi handirik zuzentasunari: asko eta gustura erabiltzen badute, hobera egingen dute, baina euskaraz egiten ez badute, ez dute inoiz hobera egingen. Gure ardura euskaraz maiz egin dezaten laguntzea da, eta euskaraz aritzea emozio eta bizipen atseginei lotzea. Horretarako bi gauza egiten ahal dituzue:
 - Zerbait adierazteko laguntza eskatzen badizuete, edo azalpenak ematen ahalegintzen ari direnean zailtasunik baldin badute, laguntza eman.
 - Gaizki esan duten hori guk zuzen birformulatu. Eredua emanen diegu, baina ez diegu errepikaraziko, eta ez diegu esanen gaizki esana zegoela.
- ✓ Hezitzaile *berritsu* gisa aritu. Hori da oinarritzkoena eta garrantzitsuena. Hau da: solasaldi ugari sortzea, haien elkarrizketetan parte hartzea eta haien mintzaraztea. Bakarka nahiz taldean. Euskaraz maiz hitz eginarazten lagunduko diegu, eta horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, emanen diegu, jakina, hezitzaile *berritsuak* izanen gara.

Hona hainbat adibide:



- Ni baloia bota nahi. Nahi dut
- bota... bota...
- Tiro egin nahi duzu? Saskira bota nahi duzu?
- Nik baloia saskira bota nahi dut. Zuk ere bai?
- Bai. Nik baloia saskira bota nahi.
- Ba, bota, ba!
- Baina Ane ez pasatzen!
- Anek ez dizu pasatzen? Hau da hau. Eskatuko diogu? Ane! Pasa baloia!
- Ane! Pasa baloia!

- Joan nahi dute gero a... a... egitera papera-
rekin.
- Gero eskulanak egitera joan nahi duzu?
- Bai. Gero eskulanak egitera joan nahi dut.
- Primeran. Baina ongi bazkaldu behar duzu
aurretik. Ados?
- Bai. Guztia janen dut.

- Gaur egin nire record.
- Gaur errekorra egin duzu? Markak hautsi
dituzu?
- Bai. 50 bular egin errekorra.
- A bai? Errekorra egin duzu 50 metro
bularreko proban? Eta zer denbora egin duzu?
- Bat minutu.
- Minutu batean egin duzu?
- Zorionak! Oso ongi!

- Nire arrainak dauka espinak
- Hezurak ditu arrainak? Eta kendu dizkiozu?
- Bai.
- Arrainak hezurrik baldin badu, kendu egin
behar zaizkio.
- Eta goxoa dago?
- Bai. Oso goxoa.





4. JARDUEREN EZAUGARRIETARA EGOKITUTAKO PROPOSAMENAK

Irizpide orokorre gain, arlo bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta, horrek, jardueren dinamika aldatzen du: jarduera gela itxi batean den edo ez, banaka edo taldean den... Horiek guztiak kontuan hartuz, hona arlokako zenbait aholku eta proposamen.

4.1 KIROL ENTRENATZAILEA NAIZ

BALIATU JARDUERAREN UNEAK

Baliatu jardueraren uneak elkarriketak sortzeko eta haien arteko elkarriketak bideratzeko. Kontuan hartu atal bakoitzean zer-nolako dinamika garatzen den, eta, horren arabera, elkarriketa batzuk edo besteak sustatu.

- Harrera
- Beroketa eta luzaketak
- Saioa bera
- Lasaitzea

Harrera

Solasaldirako une bikaina da, haurrak banaka edo binaka etorriko baitira.

- *Kaixo, lker, zer moduz?*
- *Ongi!*
- *Aurrekoan zer, piper?*





- *Bai, amarekin joan nintzen.*
- Amarekin? Nora?...

Euskararen erabilera indartzeaz gain haur eta gazteekin harremanak estutzeko ere baliagarria izanen zaizue.

Beroketa eta luzaketak

Taldeko solasaldiak piztuko ditugu, guztiok ariketa bera egiten ariko baikara.

- Beroketa ongi egin behar da!
- ¡Qué vamos a hacer luego?
- Zer eginen dugun gero? Zer iruditzen zaizu? Zer egin nahi duzue?
- Partida bat.
- Eta zergatik ez jolas bat? Norbaitek egin nahi luke jolas bat?
- Nik bai!
- Zein jolas gustatzen zaizu?
- Kantxa guztian baloia pasatzen eta harrapaketan ibiltzea.
- Baina hori askotan egin dugu!
- Egia! Hobeki, partida!
- Eta beste jolas bat proposatzen badizuet?
- Bale!
- ...



Saioa bera

Une hau izan liteke elkarrizketak sortzeko zailena, haur eta gazteak partidan edo ariketan erabat sartuta baitaude. Gainera, jokalekua zabala bada, oihuka aritu beharko genuke. Baliatu errutina linguistikoez eta animo emateko zein bestelako leloez.

Hori bai, haiekin batera saioan ari bazarete, inguruan dituzuenekin hizketaldiak pizten ahal dituzue.

Aurretik ezartzen diren eta saioan zehar behin eta berriz errepikatu behar diren esaldi edo elkarrizketak dira errutina linguistikoak. Edozein jardueratan txerta daitezke. Erraza da errutinak sortzea. Adi! Derrigorrezkoa izan behar du esaldi horiek erabiltzeak.

- Erreleboak ematerakoan. Erreleboa ematen duenak: Zure txanda!
- Erreleboa hartzen duenak: Bai, ziztuan noa!
- Balloia pasatzerakoan: Ander, zuretzat! Idoia, zuretzat!
- Balloia hartutakoan: Bai, harrapatu dut!
- Lortutako gola edo puntuak kontatzeko: A zer gola!, A zer saskira-tzea!, A zer tantoa! Apuntatu hau! Merezi du? (apuntatzen duenak), Bai, merezi du!

Lasaitzea

Lasaitzea ez da kirol jarduera guztietan egiten, baina euskararen erabilera sustatzeko eta bestelakoak lantzeko une egokia da. Etxera joan baino lehenago, taldea bildu eta saioan landutakoaz eta gertatutakoaz hitz egin.

- *Ulertu da gaur azaldutako ariketa berria? Zer iruditu zaizue?*
- Tira! Ez da erraza!
- Fijo! Honek gaizki egin du!
- Ba, zuk ere ez duzu oso ongi egin!





- Aizue! Gauza batez ohartu naiz. Zer pasatu da zuek bion artean, zein arazo izan duzue?
- Ba, ez nuen asmatzen eta hau adarra jotzen!
- Baina txantxa zen! Gero egiten lagundu dizut.
- Egia. Eta ongi egin dut.
- Ez oso ongi, baina...
- Ados. Hurrengoan hobeki egingen duzue, ez izan dudarik.

KIROL BALIABIDEAK

Material didaktikoa

<http://www.gorputzheziketa.net/>

- Euskal pilota
- Colpbola
- Aerobika
- Irristaketa
- Badminton
- Gorputz adierazpena
- Akrosporta

<http://eskupi.blogspot.com.es/p/euskal-pilota-irakaskuntzan.html>

<http://ikaspilota.blogspot.com.es/>

- Euskal pilota



Kirol hiztegiak

<http://www.hiztegia.net/gaika.php>

Kirol aldizkariak

<http://www.uribekosta.org/ukiolak>

www.sasoian.info

Kirol psikologiaren inguruko webgunea

<http://kirolpsikologia.net/>

4.2 KULTURA JARDUERETAKO IRAKASLEA NAIZ

ANTZERKI IRAKASLEA NAIZ

Antzerki jarduerak aparteko jarduerak dira euskararen erabilera sustatzeko, jardueran bertan hizkuntza erabili behar baitute garatu ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Beren artean euskaraz egin dezaten edo guk haiei lagundu ahal izateko ezin aproposagoak dira.

Beraz, ez dago dudarik hezitzaileek euskara erabiltzeko sustatzaile ere izanen garela.

- Baliaatu jarduera: antzezten ari zarete! Nabarmendu dena!





Gorputz adierazpena eta mimika erabili

Ulertzeko zailtasunak dituen partaiderik baldin badago, erabili gorputza (keinuak, imintzioak...) ahoz diozuna gorputz-adierazpenaren bidez sendotzeko.

- *Gaur aurpegiera landuko dugu: negarra, irria, tristura, poz izugarria, haserrea, nola adierazi?*

Eta hori diogun bitartean, keinuka negarra, irria, tristura... antzeztuko dugu.

Jokatu ahots doinuarekin

Gorputzaz gain, ahots tonuaz ere asko adieraz dezakezue:

- Errefortzu positiboak ematean: *Biiiiiaaaaaaiinnn!!!!!!*

Gure bidez elkarriketak bideratzean:

- *Zein paper nahi duzu, amona xaharrarena edo O-TSO-A-RE-NA?*
- *Otsoarena!*
- *Otsoarena nahi duzu?*
- *Bai! Otsoarena nahi dut!*

Jarduera euskararen erabilerara moldatu

Antzerki saioa euskararen erabilerara moldatzea oso erraza da. Adibidez:

- Eskultura sortzaileak: partaide bati irudi bat proposatu, eta honek besteei aginduak eman beharko dizkie beren gorputzez eskultura hori bera antzez dezaten. *Urko, zu etzan; Nerea, zu jarri ezkerrean eta belaunikatu. Manex, zuk zabaldu hankak eta...*
- Bat-bateko antzezpenak: partaide batek kontatzen duena besteek une horretan bertan antzeztea: *Hiri handi bateko kale estu batean, hiru mutikoz osatutako taldea doa elkarri zirika eta irriz. Parez pare trajedun gizona ageri da, eskutetan txakur txiki bat daramala...*



DANTZA IRAKASLEA NAIZ

Baliatu jardueraren uneak elkarriketak sortzeko eta haien arteko elkarriketak bideratzeko. Kontuan hartu atal bakoitzean zer-nolako dinamika garatzen den eta, horren arabera, elkarriketa batzuk edo besteak sustatu.

- Harrera
- Beroketa eta luzaketak
- Saioa bera
- Lasaitzea

Harrera

Bakarkako elkarriketetarako une bikaina da, haurrak banaka edo binaka hurbiltzen baitoaz.

- *Kaixo, Ane, zer moduz? Aho zabalka zatoz.*
- Bai, nekaturik.
- *Gauean ez duzu lorik egin edo?*
- Oso gutxi.
- *Eta hori?*
- Anaia txikiak negarrez pasatu du gau guztia eta ...

Hizkuntzaz gain, baliagarria izanen zaizue haur eta gazteekin harremanak estutzeko.

Beroketa eta luzaketak

Beroketak eta luzaketak: taldeko elkarriketak piztuko ditugu batez ere, denak ariketa bera egiten ariko baitzarete.

- *Lurrean eseri, hankak luzatu eta bizkarra jaitsi.*





- ¿Vamos a aprender un nuevo baile?
- *Zer nahiago duzue, dantza oso bat ikasi edo pausoak?*
- Nik pausoak!
- *Eta gero zer?*
- Ba, pauso horiekin guk koreografia egin.
- Ba, ez dakit, zerbait modernoa, taldean...
- Eta...

Saioa bera

Une hau izan liteke elkarrizketak sortzeko zailena, haur eta gazteak dantzan erabat sartuta baitaude. Ez estutu, baliatu errutina linguistikoez eta animo zein bestelako leloez: *Astindu gorputzak! Goazen denok batera! Bikain ari gara! Askatu hankak!*

Aurretik ezartzen diren eta saioan zehar behin eta berriz errepikatu behar diren esaldi edo elkarrizketak dira errutina linguistikoak. Edozein jardueratan txertatzen ahal dira. Erraza da errutinak sortzea. Adi! Nahitaezkoa izan behar du esaldi horiek erabiltzeak.

Lasaitzea

Lasaitzea: ez da dantza saio guztietan egiten, baina euskararen erabilera sustatzeko eta bestelakoak lantzeko une ezin egokiagoa da. Etxera joan baino lehen, taldea bildu eta saioan zehar landutakoez eta gertatutakoez hitz egin.

- *Ez da erraza sagar dantza e!*
- Joe! Lio bat da!
- Ya! Sagarrak gora, sagarrak behera! Puf!
- *Aizue! eta zer pasatzen da kabriolekin? Lasaitu eta jada ez dituzue egiten!*



- Niri hankak trabatzen zaizkit, oso zaila da!
- *Abarkak handiegi dituzulako gertatzen da hori.*
- Bai zera! Zuk ongi dituzu eta ez zaizu gertatzen.
- Nola ezetz!
- *Lasai, abarka handi eta guzti, ikusiko duzue nola lortuko duzuen!*

MUSIKA IRAKASLEA NAIZ

Saioak bakarkakoak badira, nahitaez bakarkako elkarrizketak sustatuko ditugu, eta partaidearen hizkuntza maila aintzat hartuta jokatu dugu: gure bidez edo gure laguntzaz. Gogoratu:

- Beti euskaraz hitz egin.
- Jokatu hezitzaile berritsu gisa, sortu elkarrizketak.
- Ereduak eman eta baita errefortzu positiboak ere.
- Hizkuntza errutinei arreta eman.

Hizkuntza errutinak

Egunero errepikatzen diren egoeretan edota eguneko jarduera antolatuetan hizkuntza errutinak txerta ditzakegu. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, euskara hainbat unetan erabiltzea ziurtatzen dugu.

Egunero errepikatzen diren egoeretak hizkuntza-errutinen adibideak:

- Pieza hasterakoan: *Belarriak erne? Eskuak prest? Goazen!*
- Erritmoarekin arazoak daudenean: *pon-pon ez zain egon...*
- Partiturari buelta emateko: *adi... Eman buelta horri. Azkena, ihes joan dena.*
- ...





Saioak taldean badira:

Bakarkako elkarriketak sortzeaz gain, ahalegindu beren arteko elkarriketan askotan parte hartzen eta euskaraz egin dezaten laguntzen.

Elkarriketetan eragiten

- Utzi txutxu-mutxuak eta lotu lanari! Zertaz ari zineten? A bai? Eta saio hori telebistan eman zuten? Nork ikusi zuen?
- Nork aritu nahi du zuzendari? Zuek biok? Mikel, azaldu Ainarari zuk zergatik nahi duzun. Eta gero zuk erantzun, ados?
- Hirunaka jarri, eta letra honi doinua jarri behar diozue. Nahi baduzue, doinu ezagun bat eta besteak asmatu... Ni taldez talde ibiliko naiz laguntzen. Aurrera ba! Zuek zer egingen duzue, asmatu edo ezaguna den bat aukeratu? A bai? Zergatik? Eta denok ados zaudete? Ongi, bada, segi horretan eta berehala nator pixka bat laguntzera. Itxoin niri! Gaur zuekin batera aterako naiz eta! Goazen, ba! Nora zoazte orain?

KULTURA BALIABIDEAK

Antzerki testuak

www.teatro-testuak.com

Abestiak, karaokea

www.txantxangorria.eus

www.kantuan.eus/

<http://www.badok.eus/>



Ipuinak entzuteko

www.etxegiroan.com

Jolasak

<http://www.urtxintxa.eus/jolasak/>

Marrazki bizidunak

<http://marrazkiak.euskal-encodings.com/>

Filmak

www.eitb.com/eu/kultura/zinema-euskaraz/

Webguneak (ipuinak, jokoak, kanta, marrazki fitxak, eskulanak...)

www.txiki.net/

www.childtopia.com

Aldizkariak

www.gaztezulo.com

www.irrienlagunak.com



4.3 AISIALDIKO HEZITZAILEA NAIZ

LUDETEKAN ARITZEN NAIZ

Jarduerak programatzerakoan euskararen erabilera kontuan hartu

Euskara sustatzeko jarduera aiposak

Zenbait jardueratan hizkuntza erabili behar dute jarduera bera aurrera eraman ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Beren artean euskaraz egin dezaten edo guk beraiei lagundu ahal izateko ezin aiposagoak dira. Adibidez:

- Antzerki saioak
- Irratsaioak
- Kantaldiak, karaokea
- Grabazioak

Ludotekako programazioa lantzean kontuan izan horrelakoak ere txerta ditzakezuela.

Hizkuntza-jolasak

Jostetan ari garenean hizkuntza erabili behar denean, oso aiposak dira. Hainbatetan abesti bidezkoak izaten dira.

- Asmakizunak, hitz kateak... Eskulanetan ari bagara, tarte horretan asmakizunetan ere jostatzen ahal gara.
- Abestiak dituzten jolasak, maiz eta txandaka errepikatzen diren abestiak... Ehunka ditugu horrelakoak! *Nik daukat etxetxo bat, Trikitixa xa xa, Ikusi ikusi han.*

Hizkuntza errutinak

Egunero errepikatzen diren egoeretan edota ludotekako jardura antolatuetan hizkuntza errutinak txerta ditzakegu. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, euskara hainbat unetan erabiltzea ziurtatzen dugu.

Egunero errepikatzen diren egoerarako hizkuntza-errutinen adibideak:

- Ludotekara iristen direnean hasierako harremanerako errutina: *-Begira nor etorri den! -Arratsalde on, Amaia! -Arratsalde on! -Pozik zatoz? -Jostatze gogoz!...* Eta ondoren hasiko litzateke elkarrizketa normala.
- Jardueraren amaieran abesti bat kantatzea: *Ludotekan, pasatzen dugu primeran! / Ludotekan, mila jostailu aukeran!*

Jardura antolatuetan txerta ditzakegun hizkuntza-errutinen adibideak:

- Jausgailuarekin jostetan ari garela, aginduak emanen ditugu: makarroiak gustuko dituenaz azpira! Sartu direnei galdera gehiago eginen dizkiegu: makarroiak nola gustatzen zaizkizu? Tomatearekin eta txorizoarekin! Eta gero haurrak jarriko ditugu agintzen, eta prozedura bera erabili behar dute.
- Eraikuntzako jolas bateko piezak bata bestearen gainean jarri behar dituzte ahalik eta dorre handiena egin arte. Pieza jarri behar duenak beti esan behar du: *Nire txanda! Baietz ongi jarri eta ezetz erori!* Besteek nahi dutena erantzuten dute. Pieza jartzean: *Ikusten! Artistak egin du bere lana! Nor izanen da hurrengo artista?* Pieza bat hartu eta beste bati emanen dio. Honek prozesua eta esaldiak errepikatuko ditu.

Nahi adina errutina sor daitezke. Erraza da! Eta nahi dugunean aldatu edo kendu eta berriak sartzen ahal ditugu.



Hizkuntza-paisaia eta girotzea

Ludotekan euskarak presentzia handia izan dezan zaindu, euskaraz blaitu gunea.

Marrazkiz eta euskarazko esamoldez apainduriko errotuluak zintzilikatu, edo haurrekin batera egin eta horiek paratu. Askotan egin erreferentzia bertan agertzen diren esamoldeei, eta denbora tarte bat pasa ondoren, aldatu.

Musika asko erabili. Abestiak ikasi eta abestu, karaokeak egin... Eta musika jarri hainbat tartetan: jarduera hasi baino lehen, bukaeran, jardueran zehar tarteren batean.

UDALEKUETAN ARITZEN NAIZ

Udalekuetan, itxietan batez ere, bizipen eta jarduera guztiek beste intentsitate bat hartzen dute, handiagoa. Arras jarduera egokiak dira euskara sustatzeko.

Euskara sustatzeko jarduera aproposak

Zenbait jardueratan hizkuntza erabili behar dute aurrera eraman ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Beren artean euskaraz egin dezaten edo guk haiei lagundu ahal izateko ezin aproposagoak dira. Adibidez:

- Antzerki saioak
- Irratsaioak
- Kantaldiak, karaokea
- Gau-beiletako aurkezpena talde bati ematea
- Grabazioak

Udalekuetako programazioa lantzean, kontuan izan horrelakoak ere txerta ditzakezuela.



Hizkuntza-jolasak

Hizkuntza-jolastzat har dezakegu jarduera, hartan hizkuntza erabili behar denean. Askotan abesti bidezkoak izaten dira.

- Asmakizunak, hitz kateak... Ibilaldi batean, eskulanetan ari garenean eta beste hainbat tartetan asmakizunetan ere jostatzen ahal gara.
- Abestiak dituzten jolasak, maiz eta txandaka errepikatzen diren abestiak... Ehunka ditugu horrelakoak! *Sardina bat, Lehoi baten bila noa...*
- Hizkuntza-jolasak: hitz debekatua, ipuin eroak...
- Mezuen kutxatila; postontzi hitzontzia
- Lehiaketak: maitasun eskutitzena, piropoena, txisteena, asmakizunena...
- Udalekuetako eta taldeko ereserkia sortu

Programazioaren barruan, jarduera batzuk horiek izan daitezke. Segur aski halako asko egin dituzte maiz, baina, programazioa lantzerakoan, kontuan izan komenigarria dela egunero gutxienez tarte bat izatea horretarako. Oso egokiak dira udalekuetarako!

Hizkuntza errutinak

Egunero errepikatzen diren egoeretan edota eguneko jarduera antolatuetan hizkuntza errutinak txerta ditzakegu. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, hainbat unetan euskara erabiltzea ziurtatzen dugu.

Egunero errepikatzen diren egoeretarako hizkuntza-errutinen adibideak:

- Lotarako orduan: *Gabon! Ipurdia estali eta lo on! Eta bestela, hor konpon!*
- Jarduera bat azaldu nahi dugun bakoitzean: *Erne begi-belarriak, gu ez gara zuek bezain aspergarriak!*

Jarduera antolatuetan txertatu ditzakegun hizkuntza-errutinen adibideak:

- Igerilekuan joko batzuk egin behar ditugu. Uretara salto egin, eta, beste aldera iristean, erreleboa eman behar dute. Salto egin aurretik: *Gora bihotzak!*





oihukatu behar dute. Erreleboa ematera doazenean. *Heldu goiari!* Guztiek berdin egin behar dute.

- Baloi batekin jostetan ari gara. Borobilean jarrita eta eskuz esku pasatzen. Pase bakoitzaren ondoren, guztiok pauso bat atzera egin behar dugu, gero eta zailagoa izan dadin. Pasea ematen duenak: *Tori, Eneko. Harrapatuko duzu?* Baloia hartzen duenak: *Bai! Harrapatu dut.* Honek hurrengoari: *Tori, Izaro. Harrapatuko duzu?* Bai.
- Animoak emateko leloak landuko ditugu. Talde bakoitzak bereak.

Nahi adina errutina sor daitezke. Erraza da! Eta nahi dugunean aldatu edo kendu eta berriak sar ditzakegu.

Hizkuntza-paisaia eta girotzea

Udalekuetan euskarak presentzia handia izan dezan zaindu, euskaraz blaitu gunea.

Askotan erabili musika. Abestiak ikasi eta abestu, karaokeak egin... Eta musika jarri hainbat tartetan: jarduera hasi aurretik, bukaeran, jardueran zehar tarteren batean... Hezitzaileok asko abesten baduzue, haiek ere asko abestuko dute!

Marrazkiz eta euskarazko esamoldez apainduriko errotuluak zintzilikatu, edo haur eta gaztetxoekin batera egin eta horiek paratu. Askotan egin erreferentzia bertan agertzen diren esamoldeei.

GAZTELEKUAN ARITZEN NAIZ

Ez da gauza bera haurrekin edo gazteekin aritzea. Azken hauen kasuan, hizkuntza-ohiturak nahiko finkatuta egon ohi dira, eta adina eta izaera ere hartu beharko ditugu kontuan. Hala:

- Gazteekin beti euskaraz: ez ahaztu hezitzaile berritsuak zaretela, eta, haie-tako batzuek agian zuei gaztelaniaz egin arren, garrantzitsua dela hizkuntza ohiturak hasieratik finkatzea. Horregatik, zuek beti euskaraz egin.



- Ahalegina eskatu eta haiekin hitz egin: argi azaldu euskaraz egitea eta horretan ahalegintzea nahi genukeela. *Gaztelekuan euskaraz aritu nahi dugu hau gune euskalduna izan dadin eta badakizue hezitzaileok hala egiten dugula, baina zuen laguntza behar dugu dena borobiltzeko. Zuetako batzuentzat ez da erraza, badakigu, eta gu prest gaude laguntzeko. Guztion artean baietz lortu!*
- Erroka gisa planteatu eta laguntza behin eta berriz eskaini: *Aurrekoan film labur bat euskaraz sortzea eta grabatzea lortu genuen, baietz aurtengo beldur-raren pasabidea ere euskaraz egin! Nik eredu eta erreferentzia lagungarri batzuk eskuratu ditut! Has gaitezen, ba!*
- Ahalegina eskatu bai, gure eraginaren bidez lagundu ere bai, eta nola ez, aha-legina baloratu! Askotan errazagoa eta erosoagoa guztia gaztelaniaz egitea denez, euskara erabiltzeko ahalegina egiten dutenean, baloratu ahalegin hori eta errefortzu positiboak eman (zoriondu, guretzat zein pozgarria den esan...).

Euskara sustatzeko jarduera proposak

Zenbait jardueratan hizkuntza erabili behar dute aurrera eramanez ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Haien artean euskaraz egin dezaten edo guk haiei lagundu ahal izateko ezin proposagoak dira. Adibidez: antzerki saioak, irratsaioak, kantaldiak, karaokea, grabazioak...

Gaztelekuko programazioa lantzerakoan, kontuan izan horrelakoak ere txertatzen ahal ditugula.

Hizkuntza-jolasak

Hizkuntza-jolastzat har dezakegu jarduera, hartan hizkuntza erabili behar denean: asmakizunak, txisteak, hitz kateak.

Lehiaketak antola ditzakegu edo programazioaren barrenean horiekin zerikusia duten jarduerak sartu.

- Lehiaketak: asmakizunak, txisteak, esamoldeak (piropoak, animoak...), hitz-kateak...





Jardueran txertatzea: mezuen kutxatila, postontzi hitzontzia...

Hizkuntza-paisaia eta girotzea

Gaztelekuan euskarak presentzia handia izan dezan zaindu, euskaraz blaitu gunea.

Maiz erabili musika. Musika jarri hainbat tartetan: jarduera hasi baino lehen, bukaeran, jardueran zehar tarteren batean... Kontua ez da musika guztia euskaraz jartzea, baina bai euskarazko musikari tarte duina egitea.

- Marrazkiz eta euskarazko esamoldez apainduriko errotiluak zintzilikatu, edo gazteekin batera egin eta horiek paratu. Askotan egin erreferentzia bertan agertzen diren esamoldeei, eta denbora tarte bat pasatu ondoren, aldatu. Hizkuntzarekin lotutako esamoldeak izan daitezke (adarra jotzeko esamoldeak, aspertuta gaudenean erabiltzekoak...) edo gazteen interesekoak izan daitezkeen gaiekin lotutakoak (musikarekin, kirolarekin...).

AISIA BALIABIDEAK

Entzuteko ipuinak

www.etxegiroan.com

www.solasegitekoipuinak.net

APP: ipuintxo

Karaokea

<http://www.txantxangorria.eus/>

<http://www.kantuan.eus/>



www.alea.eus/kantari

YOUTUBE: Gabi de la maza

Ipuinak, abestiak

www.txiki.net

www.childtopia.com

Irratsaioa

HALA BEDI IRRATIA:

<http://halabedi.eus/programazioa/kultura/alai-bedi>

Asmakizunak, txisteak

<http://jolasakhh.blogspot.com.es/2012/12/ezetz-asmatu.html>

<http://www.slideshare.net/javialdai/asmakizunak-2-maila>

<http://gartetxe.wixsite.com/denborapasak/asmakizunak>

4.4 JANTOKIKO HEZITZAILEA NAIZ

HIZKUNTZA PAISAIA

Euskararekiko harremana lantzeko modu bat paisaia linguistikoa zaintzea da. Jantokiaren kasuan: marrazkiz eta euskarazko esamoldez apainduriko kartelak zintzilikatuz. Kartel horiekin jantokia girotzen dugu, eta euskarak lekua hartzen du. Lagungarria da bereziki tarteka kartelak aldatzen baditugu. Urtaroarekin lotutako esaldiak izan daitezke, edo janariekin, edo jateko moduekin...





Esaldi batzuk aukeratzen badituzue, hiru modu behintzat badituzue prestatzeko:

- Ikasleekin eskulanak egin eta haiekin batera prestatzea.
- Hezitzaileok prestatzea.
- Ikastetxeko arduradunei eskatzea.

Hona hainbat adibide:

Umore puntutxoak duten esaldiak

Guri eman kroketak, eta ez etxerako ariketak!

Goseak erremedio bakarra du: jatea.

Gustatzen zaigu arraina, alajaina!

Entsalada jan eta ibili dantzan.

Ikusten ditudanean dilistak, ateratzen zaizkit begietatik txispak.

Zopa bero? Ahora gero.

Jan fundamentuz.

Bapo nago.

Primeran dago.

Jan dezaket bigarren platera? Lehenbizi, bukatu aurrena!

Makarroiak eta tomateak, ba al dago zerbait hobea?

Hau zalaparta! Hau buruko mina!

A zer burrunba eta zarata, jantokia baino gehiago batukada ematen du honek.



Isilik, mesedez, janariak zer esaten duen aditu nahi dut eta!

Janarien eta jateko tresnen argazkiak eta izena ondoan

Makarroiak, zopa, arroza.

Koilara, platera...

Ikasleekin erabiltzen ditugun esaldiak

Tripazorriak ditut!

Goseak nago!

On egin. Eskerrik asko eta berdin.

Mesedez, gehiago.

Ongi jan.

Bapo nago.

Zer goxoa!

Jan dezaket bigarrena? Lehenbizi, bukatu lehena.





EGUNEROKO ESAMOLDEAK: ERRUTINA LINGUISTIKOAK

Errutina linguistikoek euskararen erabileran laguntzen dute. Ikasleek euskara maiz entzutea nahi dugu, eta, horrekin batera, euskara erabiltzea. Esaldi batzuk askotan entzuten badituzte, erabiltzen has daitezke, bereziki beren harremanetarako ere baliagarriak baldin badira.

Proposamena hau da:

- Aukeratu egunero edo ia egunero errepikatu daitezkeen esaldi batzuk: 3 edo 4.
- Bi modutako esaldiak izan daitezke: jarduerarekin zerikusi zuzena dutenak edo egoera informaletarako esaldiak.
- Hezitzaile guztiok egunero esaldi horiek erabiltzen hasi. Behin eta berriz.
- Ohitura hartua duzuenan, beste 3 edo 4 ikasi eta erabiltzen hasi.
- Poliki-poliki errutinazko esaldi asko erabiltzera irits gaitzke.

Jarduerarekin zerikusia duten esaldi adibideak:

Gosea adieraztekoak

Tripazorriak dauzkazu?

Goseak amorratzen, ezta?

Zulo handia duzue? Nolakoa?

Gaur ere gosez etorri zarete?

Janariari buruz

Goxoa dago, ezta?



Itxura bikaina dauka!

Usain goxoa du!

Jateko jarrerari buruz

Zergatik jan behar da ongi? Sasoian egoteko.

Ez ibili lardaxkan. Dena barrenera.

Kontuz! Mingaina erre gabe, oraindik bero dago eta.

Tira, handiek bezala jan: koilara ongi bete eta barrenera.

Janaria hartzen dutenean

Begi-goserik ez. Neurrian hartu.

Platereko guztia, ahora, dena barrenera.

Etxeko araua: denetik probatu behar. (Batzuetan erabili eta gero galdera soilik: Zein da etxeko araua?)

Badakizue: kexa gutxiago, eta gutxienez probatu!

Dinamikari buruzkoak

Jandakoa asentatzeko, jolastera atera!

Txukun utzi mahaia, ongi bildu dena!





OHIKO ESAMOLDEAK: HIZKERA INFORMALA

Badira jarduerarekin zerikusi zuzena ez duten baina askotan erabiltzen diren esaldi batzuk, bai jantokian eta baita atsedean tartetean ere. Egoera horietan, haiek gaztelaniaz erabiltzen dituzten errutinazko esamoldeen ordezkak proposa ditzakegu, eta hezitzaileok behin eta berriz erabili.

Hauek adibide batzuk. Baina osatu zuen zerrenda!

Nekea adieraztekoak

Leher egina zaude, ala?

Porru eginda nago

Neka-neka eginda?

Animoak ematekoak

Eutsi goiari

Primeran ari zarete!

Hori da sasoia, hori!

Adarra jotzekoak

Hori bai tipo xelebrea!

Irriz lehertuko naiz!

Lotara joaterakoan (haur txikiekin)

Kremailera itxi!



Bolon bat eta bolon bi, isil-isilik nago ni (abestu)

Bestelakoak (nerabeek erabiltzen dituztenak)

"¡Qué pereza!"ren ordezkak: *hau nekea, hau gogo falta...*

"¡Que asco!" "¡Qué basura!" "¡Está prodrido!" ren ordezkak: *hau nazka, a zer itxura txarra, hau kiratsa, hau goragalea...*

"Cenutrio" ren ordezkak: *kalamidadea, ez izan baboa.*

Hezitzaileok esamolde hauetako batzuk aukeratu eta errutinaz erabiltzen hasten bazarete, haurrak eta gazteak ere has daitezke erabiltzen. Aukeratu bakar batzuk, eta hasi guztiok egunero erabiltzen, eta poliki-poliki esaldi berriak txertatu.





5. PRAKTIKARAKO BALIABIDEAK ETA AZKEN GOMENDIOAK

Jardueren ezaugarrietara egokitutako proposamen guztietan, hizkuntza errutinak, hizkuntza-jolasak eta euskara ardatz duten jarduerak baliatzea proposatu dugu. Erabili ahal izateko, dena dela, ereduak eta baliabideak edukitzea beti da lagungarria!!! Honatx adibideren bat:

5.1 HIZKUNTZA ERRUTINAK

Jarduera jarraituetan eta egunero errepikatzen diren egoeretan edota eguneroko jarduera antolatuetan erabiltzen ditugun esaldi, kanta edo esakerak dira hizkuntza errutinak. Errepikatzen diren esaldi hauen bidez, euskara hainbat mementotan erabiltzea ziurta dezakegu:

- Eguneroko errutinak
- Abestiak eta leloak dituzten jolasak

Eguneroko errutinak

EGUNEROKO ERRUTINAK

OTORDUAK

- "On egin, eskerrik asko eta berdin!"
- "Ñam Ñam, on egin! Ñam Ñam, on egin! Ñam Ñam, on egin! eta on egin denoi! Papapa..." (bis)
- "Gosaldu/bazkaldu/askaldu/afaldu nahi dugu, Gosaria/bazkaria/askaria/afaria delako, gosearen kontrako sendagarria... On egin!"





OHHERA SARTU / ATERATZEKO

- "Egun on / Gabon bon-bon! / Ondoloin"
- Erlaxazio teknika: Binaka jarrita, batak bestearen bizkarrean eskuarekin animalia hauen pausuak imitatuko ditu. Erlaxazio teknika bat da, afektua adierazteko modua.

Sugeak gora-gora
sugeak behera-behera
 eta zirt eta zart eta gora eta behera.
 (atzamarrarekin sugeen mugimendua imitatuz)

Inurriak gora-gora
inurriak behera-behera
 eta ñir eta ñir eta gora eta behera.
 (inurrien pausu txikiak atzamarrekin imitatuz)

Karramarroak gora-gora
karramarroak behera-behera
 eta krak eta krak eta gora eta behera.
 (eskuekin karramarroen ibilera imitatuz)

Elefanteak gora-gora
elefanteak behera-behera
 eta tonp eta tonp eta gora eta behera.
 (eskua itxiz, golpe leunak emanez)

KOMUNERA JOATEKO

- "Komuna ataskatuko dut, komuna ataskatuko dut, kriston mokordoa, botako dudana, komuna ataskatuko dut ..."
- "Bota pinue!"



ZOTZ EGITEKO JOLASAK

*Terrela-merrela, kin-kun-kin,
 portan zela, portan min,
 karu, sinu, minu, let!*

*Txintxina-mintxina sutara,
 barbara txikitea.
 Gaztaina gora,
 gaztaina behera,
 txukutun-txakutun,
 fuera!*

*Dondon kandel,
 nika-nika moskatel,
 zerradura klabadura,
 txintxiri barka,
 txiri-biri plata,
 plata txipiton delapon,
 zaku zahar baten hiru gizon,
 bat, bi (e)ta hiru!*

Jende gutxi dagoenean era laburtuan:

*Gaztaina gora,
 gaztaina behera,
 txipliti-txaplata
 fuera!*

*Don, don kikilikon,
 saltsa pika tortolika,
 patinean korrika!*





Oharrak

Lehenbiziko laurak Nafarroako aho tradiziokoak dira.

Abestiak eta leloak dituzten jolasak

MAITE ZAITUT

Deskribapena

Jolaskideak aulki banatan eseriko dira, biribila osatzen dutela. Beste lagun bat erdian geratuko da zutik.

Erdian dagoena eserita dagoen batengana hurbilduko da, eta esanen dio: MAITE ZAITUT.

Eserita dagoenak, berriz, erantzun egin beharko dio: ZERGATIK? Eta erdiko jolaskideak arrazoiren bat eman beharko dio. Arrazoia edozein izan daiteke, baina beti eserita dagoen jokalariaen ezaugarri bat izan behar du: ezaugarri fisikoa (ilearen kolorea, sudurraren neurria, begien kolorea...), jantzita duen zerbaiten ezaugarria (galtzen kolorea, oinetako mota, alkandoraren kolorea...), bestelako ezaugarriren bat (mutila ala neska den, nongoa den, adina...) eta abar. Adibide gisa, erdikoak esan dezake: OINETAKO BELTZAK DITUZULAKO.

Ezaugarri hori duten guztiak aulkitik altxatu egingo dira orduan, eta beste aulki batean esertzen saiatuko dira. Ezaugarri hori betetzen ez dutenak ez dira beren aulkitik mugituko. Eserita daudenak tokiz aldatzen diren bitartean, erdiko jokalaria hutsik gelditutako aulki batean esertzen saiatuko da. Horrela, hurrengo txandarako beste jolaskide bat geratuko da erdian, eta jolasa errepikatu egingen da, bestelako ezaugarriren bat esanez.

Oharrak

Hizkuntza lantzeko oso jolas aproposa da. "Maite zaitut" esaldia esan ordez, beste edozein esaldi erabil daiteke. Adibidez, ezezkola landu nahi badugu, honako elkarrizketa hau egin daiteke:



(1) ez zaitut maite
(2) zergatik?
(1) begi urdinak ez dituzulako. Orduan begi urdinak ez dituztenek tokiz aldatu behar dute.

Beste adibide bat:

(1) herriko festetara joan nahi dut zurekin
(2) zergatik?
(1) alkandora gorria duzulako.

ITSUKA

Deskribapena

Zotz egin ondoren, "itsua" nor izanen den aukeratuko dugu. Itsuari begiak estali ondoren, beste jokalaria biribilean jarriko dira, itsua erdian utzita.

Biribileko jolaskideak bueltaka hasiko dira, eta itsuarekin batera abestia abestuko dute elkarrizketan ariko balira bezala:

Itsua: zer ordu da?

Taldea: ordu bata

Itsua: zer ordu da?

Taldea: ordu biak

Itsua: zer ordu da?

Taldea: hirurak

(...)

Itsua: zer ordu da?

Taldea: hamabiak

Itsua: nire opila erre al da?

Taldea: erdia bai eta erdia ez

Itsua: beste erdia noizko?

Taldea: bihar goizean txokolatea hartzeko!



Azkeneko esaldia abestean, borobilean daudenak gelditu egingen dira, eta itsuak bat harrapatuko du. Harrapatutakoa ukituz nor den asmatu beharko du itsuak. Nor harrapatu duen asmatzen badu, harrapatutakoa jarriko da itsuarena egiten. Bestela, berriz, itsuak beste jolaskideren bat harrapatu beharko du.

KOLOREEN SORGINA

Deskribapena

Partaideen taldea horma baten kontra jarriko da, eta sorgina izanen dena beren aurrean. Sorginak kolore bat esatean, kolore hori soinean daukaten guztiak hormatik atera beharko dira sorginarengandik ihes. Sorginak harrapatutakoa sorgin bilakatuko da. Honako errutina hau erabiliko da:

Sorgina: Tok tok

Taldea: Nor da?

Sorgina: Koloreen sorgina

Taldea: Eta ze kolore nahi duzu?

Sorgina: GORRIA!!

Oharrak

Koloreen orde, beste kontzeptu batzuk erabiltzen ahal dira: materiala, arropa, janaria...

5.2 HIZKUNTZA JOLASAK

Jolasean bertan hizkuntza erabili behar denean (askotan abestiak izaten dira). Betiko jolasen moldaketak dira, baina hizkuntzaren erabilera integratuz. Izan ere, jolas guztiak gure nahi eta beharretara egokitu daitezke –burua pixka bat nekatuz–, gure helburuekin bat egiteko.

Jolasen moldaketak:

- Jolas aktiboak
- Jolas lasaiak

INTERNETEKO BALIABIDEAK

Jolasak

<http://www.urtxintxa.eus/jolasak/>

www.jolasak.eu

www.urtxintxa.eus/jolasguneak/jolasak

www.jolastu.eus

Jolas aktiboak

IZARRA

Deskribapena

Jokalari guztiak sei laguneko taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak ilara bat osatuko du, talde guztien artean izar itxurako irudi bat osatzeko, eta izarren erdian zapi bat jarriko da. Lerro bakoitzeko jokalaria bakoitzari zenbaki bat jarriko zaio: ilarako lehenbizikoa bat zenbakia izanen da, bigarrena bi zenbakia, eta azkena sei zenbakia.

Izarretik kanpo, beste jokalaria bat egonen da, "agintaria". Horrek zenbaki bat oihukatuko du, eta zenbaki hori duten guztiek korrika hasi beharko dute izarren kanpoaldetik. Kanpoko biribil guztia egin ondoren, jokalaria bakoitzak bere lerroa itzuli, eta bere taldekide guztien hanka azpitik pasatu beharko du, eta erdian dagoen zapia hartzen saiatuko da. Zapia hartzen duen jokalaria puntu bat irabaziko du bere taldearentzat.

Jolas bera errepikatzen da, jokalariei zenbakiak aldatuz.



Oharrak

- Taldeak jokalaria gehiagoz edo gutxiagoz ere osa daitezke. Talde kopurua ere alda daiteke.
- Aldaerak asko izan daitezke, adibidez, hiztegia edo soinuak lantzeko:

Zenbakiekin jolastu ordez, beste edozein hitzekin ere jolas daiteke. Adibidez zuhaitzekin jolastuz gero, talde bakoitzean pinua, izeia, pagoa, intxaurren-doa... izenak banatuko ditugu.

BONBA!

Deskribapena

Jokalaria guztiak, bat izan ezik, zutik jarriko dira borobil bat osatuta. Beste jokalaria borobilaren erdian jarriko da. Borobilean daudenak elkarri baloia pasatzen hasiko dira (bakoitzak bere ondokoari), eta, baloia pasatzerakoan, jokalaria bakoitzak, euskarazko hitz edo esaldi bat esan beharko dio ozenki ondokoari. Bitartean, erdikoa begiak itxita dituela, zenbatzen arituko da (guztira 30).

- 10 zenbatzen duenean, KONTUZ! Esango du eta esku bat altxatuko du.
- 20 zenbatzean, ARRISKUA! Eta beste eskua altxatuko du.
- Eta azkenik 30era ailegatuta, BONBA! Esanen du txalo bat ematearekin batera.

Une horretan, baloia esku artean duenak lurrean eseri beharko du, hankak luzatuta.

Jolasa berriro hasiko da, eta, modu horretan, albokoek hanken gainetik salto egin beharko dute.



Oharrak

Bi aukera ditugu: galderen gaia zehaztea edo ez zehaztea, galdera/erantzunak izan beharrean errima bera duten hitzak izan daitezke... umeen euskara maila kontuan harturik.

Erdikoak ALDAKETA! Esanez, norabide aldaketa egin daiteke.

AUTOTXOKEAK

Deskribapena

Gidariak musika jarriko du, eta partaide guztiak dantzan arituko dira. Musika gelditzean, gidariak gorputzeko atal bat eta zenbaki bat esanen du, eta partaide guztiek beren gorputzeko atal hori gidariak esandako partaide kopuruz osatutako taldeetan elkartu beharko dute. Gero, berriro musika jarriko du, eta denek dantzan jarraituko dute, gidariak berriz ere musika gelditu eta gorputzeko beste atal bat eta beste zenbaki bat esan arte.

Adibidez:

- 5 esku!
- 7 ipurdi!

Oharrak

Euskara gutxi dakiten haurrekin erabiltzeko jolas proposa da, oinarritzko hiztegia lantzen baita.

ZAPIA

Deskribapena

Bi talde eginen dira, eta haietako bakoitza eremuaren alde banatan jarriko da. Partaide bakoitzak batetik partaide kopuruaren zenbakirainoko zenbaki bat izanen du. Bi taldeen arteko erdigunean objektu batzuk utziko dira, eta pertsona bat egonen da bertan.





Pertsona horrek zenbaki bat esan ondoren, objektu baten ezaugarriak esaten hasiko da, eta talde bakoitzetik zenbakia duten pertsonak zer objektuz ari den asmatu beharko dute. Hori egitean, arin-arin, erdian dauden gauza guztien artean hartu beharko dute, eta, beste taldekoek harrapatu baino lehen, bere taldera itzuli.

Oharrak

Komeni da objektu bakoitzaren ezaugarrien zerrenda idatzita izatea.

Talde bakoitzetik pertsona bakarra atera beharrean, bat baino gehiago atera daiteke zenbaki gehiago esanez. Bi ateratzean, bata bestea bizkarrean eramanda, hiru doazenean zabu batean bezala eta lautik gora ilaran aurrekoaren eskua hanka artetik helduta (kooperatiboa).

Jolas lasaiak

KITTO HITZ!

Deskribapena

Jokalari bakoitzak orri bat eta arkatza edo boligrafo bat hartuko du idazteko. Denen artean, zortzi hitz multzo aukeratuko dira, eta jolaskideek beren orrietan idatziko dituzte. Adibidez: pertsona izenak, ugaztunak, koloreak, herriak, janariak, zuhaitzak, ibaiak, mendiak...

Jokalari batek letra bat esanen du ozenki, eta, orduan, denek idatzi beharko dituzte letra horrekin hasten diren zortzi hitz. Hitz horietako bakoitzak aurretik aukeratutako multzo batekoa izan beharko du. Adibidez, U letra aukeratuz gero, honako hitz hauek idatz daitezke: Unai, Untxia, Urdina, Urruña, Urraburua, Urkia, Urdaibai, Uzturre...

Norbaitek hitz multzo bakoitzeko hitz bana idatzi orduko, "KITTO HITZ!" oihukatu du, eta, harrezkero, gainerako jolaskideek ezin izanen dute beste ezer idatzi beren zerrendetan.



"Kitto" oihukatu duen lagunaren hitzak begiratu behar dira lehenik. Hitz bakoitzeko hamar puntu irabaziko ditu, baina, beste jokalariren batek hitz bera idatzi badu, hitz horrek bost puntu besterik ez du balioko.

Jokoa errepikatzen da, baina beste letra batekin. Ehun puntu lortzen dituen lehenbiziko jokalaria irabaziko du.

Oharrak

Honelako taula ereduak erabili daiteke:

	Izena	Animalia	Kolorea	Lekua	Janaria	Puntuak
U	Unai	Untxia	Urdina	Urdaibai	Uraza	50
...						

BINGO!

Deskribapena

Parte-hartzaileei fitxa batzuk banatuko zaizkie, eta haietan irudi batzuk azalduko dira, plater bat egiteko behar diren osagaiak, adibidez. Kutxa/poltsa batean, fitxetan dauden irudi guztiak egonen dira; kasu honetan, osagai guztiak. Parte-hartzaile batek irudi bat hartu beharko du kutxatik, eta izena ozenki irakurri. Azukrea! Adibidez. Besteek beren fitxetan osagai hori duten ala ez begiratu beharko dute. Osagaia izanez gero, X batez markatu beharko da, eta, izan ezean, ez da ezer egin beharko. Osagai guztiak markatzen dituen lehenak BINGO! oihukatu beharko du.

Oharrak

Errezetekin, eskulaneekin, objektuekin ... egin daiteke.

BINGO! oihukatu eta gero, errezetak konpartitu daitezke, hiztegia landu, errezetaren bat praktikan jarri...



PORRU SALDA

 PORRUAK	 PERREXILA	 PATATA
 AZENARIOA	 URA	 OLIOA

EZAGUTZA BINGO

Deskribapena

Orri batean taula bat marraztuko dugu, eta, laukitxo bakoitzean, pertsona baten inguruko ezaugarri edo gustu bat idatziko dugu. Partaide bakoitzak horrelako orri bat izanen du, eta, gainontzekoei galderak eginez, gustu edo ezaugarri hori betetzen duten pertsonak aurkitu beharko dituzte izenak laukian idatziz. Lauki guztietan izen bat lortzea izanen da helburua.

Ezaugarri edo gustuen adibideak:

Anai-arrebak ditu, txokolatea gustatzen zaiu, "El rey león" ikusi du...

Oharrak

Komeni da taula aldeztu aurretik prestatua izatea, eta, haurren parte-hartzea sustatzeko, haiek galderak prestatzen ahal dituzte.

5.3 EUSKARA ARDATZ

Hizkuntza ezinbesteko tresna denean jarduera aurrera eraman ahal izateko. Aproposak haien artean euskaraz egin dezaten edo guk beraiei lagundu ahal izateko.

- Irratsaioa, aldizkaria...
- Antzerkiak
- Karaokeak
- Ipuinak
- Asmakizun jolasak, txisteak...
- Jarduera jarraituak

Irratsaioa, aldizkaria...

UDALEKUETAKO KRONIKAK

Deskribapena

Errutina gisa erabil daiteke hizkuntza. Egun bakoitzaren kronika talde bati egokituko zaio eta hainbat modutan egin daiteke:

- Irratsaioa: Gaubelan irratsaio gisa aurkez daiteke, edota grabatu eta azken egunean grabazio guztiak entzun...
- Aldizkaria: Egunero talde bakoitzak idatzitako kronika gorde, eta, udaleku/kurtsu amaieran, aldizkaria sortu.
- Albistegia: albistegi gisara, gaubelan/kurtsoko azken egunean aurkeztu.



Oharrak

Aldaerak asko izan daitezke, eta haurren egoerara moldatzea komeni da.

Hezitzaileen laguntza garrantzitsua da.

Antzerkiak

ROLL PLAYINGa

Deskribapena

Partaide bakoitzak rol eta egoera desberdina izatea eta hori antzeztea da kontua. Egoerak asko izan daitezke; adibidez, sortu edo landu nahi ditugun gaiak erabiliz: kulturartekotasuna, hezkidetza, jardueran zehar gertatu den gatazkaren bat...

Adibidez:

- *"Denbora librean etxola bat egiten ari zarete, eta Miren hurbildu zaizue, parte hartzen ahal duen galdezka"* > rolak (batek ez du nahi, besteak nahi du, eta beste bati berdina zaio. Hezitzailea ere hurbildu da).

Oharrak

Hasieran, sortutako gatazka antzeztu daiteke, eta, gero, egoera berdina baina gatazka konponduz.

SUGEGORRIA

Deskribapena

Haurrek edota hezitzaileek gai baten inguruan (kulturartekotasuna, euskara, hezkidetza, jardueran zehar sortutako gatazka...) espresuki sortutako gidoi bati jarraikiz antzerki labur bat egitea da kontua. Gerora, antzerki horri aldaerak txertatuko zaizkio: azkarrago antzeztea, motelago, kantatuz, oihuka, negarrez, irriz...



Adibidez:

Egoera: Mendira egin duzue irteera, eta aterpetxerako bueltan euria hasi du.

Pertsonaiak: euria gustatzen zaiona (1), euria gorroto duena (2), euriak beldurra ematen diona (3), hezitzailea (4)...

(Taldekideek pauso-hotsak eginen dituzte)

(4) Laster, uste dut euria eginen duela!

(2) Euria ez zait batere gustatzen! Ilea bustiko zait!

(taldekideek euri-tanten hotsa eginen dute)

(1) Zeinen ongi! Euria! Izugarri gustatzen zait!

(3) O, ez! Katarroa harrapatuko dugu! Ze beldurraaa!

(4) Lasai! Ura besterik ez da, azken txanpa falta zaigu! Azkarrago ibili!

(Taldekideek pauso-hotsa eginen dute, oraingoan bizixeago)

(2) (3) (4) Zer ongi! Ailegatu gara!

(1) O, zer pena!

Oharrak

Komeni da, hezitzaile taldeak aldeaz aurretik esketx batzuen gidoiak prestatu izatea.

Rol eta genero estereotipoak kontuan hartu behar dira (ausartaren papera nork hartzen duen eta abar).





Karaokeak

KANTU LEHIA

Deskribapena

2/3 talde egin, eta proba desberdinak proposatuko zaizkie.

- Hitza eman eta txandaka hitz hori duen abestia kantatu beharko dute (talde bakoitzak bat, hurrenez hurren). Horrela, abestirik bururatzen ez zaion taldea kanporatua izanen da.

Adibidez: ilargia, kolorea, itsasoa, maite/maitasuna, bihotza, bai...

- Abestiaren letra hutsune batzuekin eman eta taldeka bete. Gero, abestia jarriko da, hutsuneak ongi bete dituzten ikusteko eta denon artean abesteko.

Oharrak

Ariketa desberdinak txandakatzea komeni da, pisutxuegia ez izateko.

Ipuinak

IPUIN KOLEKTIBOA

Deskribapena

Partaide guztiak lurrean etzanen dira ilara berean, bata bestearen sabelean burua jarritz. Horrela gaudela muturrean dagoenak istorio bat hasiko du, nahi duena. Eta hurrenkerako hurrengoak istorio horri jarraipena eman beharko dio bere ukitu pertsonala emanez.

-Bazen behin...

- ...

Oharrak

Aproposa sormena lantzeko.



Asmakizun jolasak

ISTORIOAK

Deskribapena

Taldekilde batek istorio baten amaiera kontatuko du, eta gainontzekoek, "bai" edo "ez" erantzuna izan dezaketen galderak eginez, istorio osoa asmatu beharko dute. Adibidez:

URPEKARIA: BUKAERA > Urpekari bat zuhaitz baten gainean agertu da. ISTORIOA > Urpekaria itsasoan igerian zebilen. Hegazkin batek itsasoko ura hartu behar izan zuen sute bat itzaltzeko, eta urpekaria ere ur horrekin batera eraman zuen. Gero, ura basoan bota zuen eta urpekaria ere urarekin batera erori zen.

BASAMORTUAN > BUKAERA: Basamortuaren erdian hilda, biluzik dagoen pertsona bat dago, lasto pixka bat eskuan duela. ISTORIOA > Globo baten gainean zeudela, pisu handiegia zuten. Arropa guztia erantzita ere, pisua kendu beharra zuten. Beraz, lasto zatitxo bat otzaratik kendu, eta zozketa egin zuten. Zatirik motzena hartzen zuenak bere burua globotik behera bota behar zuen.

Oharrak

Ume eta gaztetxoek ere talde txikitan istorioak asma ditzakete, eta, horrela, euskararen erabilera bermatuko dugu.

BETIKO ASMAKIZUNAK

Deskribapena

Asmakizuna bota behar duenak hasi baino lehen esateko bi formula:

Pipitaki-papataki, nik dakidana nork daki? (eta asmakizuna esan)

Edo beste hau:

Nik papaita, zuk papaita, nik badakit gauza bat zuk asma dezakezuna: (eta asmakizuna esan)





Asmakizunak

Formula esan eta...

- Gorputza luzea du, eta burua argia.
Berotzen hasten denean dena da negar eta izerdia! > Kandela.
- Txiki-txikia da baina edonor edonoiz jar dezake dantzan. Zer da? > Arkakusoa da.
- Puntan-puntan bi, atzean zulo bi; eta puntan-puntan bat, atzean zulo bat, zer dira? > Guraizeak eta jostorratza dira.
- Botilaren muturrean naukazu, eta ezinezkoa da edatea. Baina, ni askatzeko, hobe duzu bi ezpainak ongi ixtea. Zer da? > B letra da.
- Lagun bakarrak ordubete behar du zulo bat egiteko, eta bi lagunek bi ordu behar badituzte bi zulo egiteko, zenbat lagun behar dira zulo erdia egiteko? > Ezin da zulo erdirik egin.

Jarduera jarraituak (udaleku osoko jarduerak)

HITZ HILTZAILEA

Deskribapena

Partaide bakoitzak paper zati batean bere izena idatziko du, eta beste batean hitz bat. Guztiak bildu ondoren, bakoitzari izenen multzotik bat eta hitzen multzotik beste bat banatuko zaie. Une horretan jolasa hasiko da, eta egonaldiak izanen duen iraupena izan dezake.

Helburua tokatu zaizun pertsona hartu duzun hitza esanaraziz hiltzea da. Horretarako elkarrizketa, galdera edo askakizunez baliu daitezke. Zure biktima hiltzean, berak dituen izena eta hitza pasatu beharko dizkizu, eta haiek izanen dira zure hurrengo biktimak. Horrela bakarra gelditu arte bizirik.



Oharrak

Hildakoek eskela bat egin beharko dute kanposantu modura egokitutako txokoan jartzeko. Bertan, nola hil dituzten azaldu beharko dute: irudi, abesti, bertso...batekin.

PIROPO-POSTA, KUXKUXEROA...

Deskribapena

Leku ikusgarri batean, postontzi bat jar daiteke, eta, egonaldian zehar, postontzira euskarazko mezuak, piropoak, oharrak... sartzeko gonbita egin. Ondoren, gaubelan, guztiok batera irakurriko ditugu.

Oharrak

Guztien aurrean irakurri baino lehen, filtroa pasatzea komeni da.

Abestitxo batekin aurkezpena egitea gomendatzen dugu (hizkuntza errutina gisa).

5.4 BESTE ERAGINBIDE BATZUK

Teknikez gain, eragiteko beste bide batzuk kontuan hartzea komeni da.

Hizkuntza paisaia (kartelak, arauak...)

Jarduerak gauzatuko diren espazio fisikoan dauden kartel, arau eta abar zein hizkuntzatan dauden zaintzea garrantzitsua da. Haurrek hizkuntza paisaian parte har dezakete kartel berriak sortuz eta daudenak euskaratuz (arauen kartelak, zaborrontzien izenak...).





INTERNETEKO BALIABIDEAK

Hiztegiak

www.hiztegia.net

<http://casalabores.com/ikasten/hiztegia/>

Musika

Euskarazko musika aditza garrantzitsua da. Pentsa ezazue hortik kanpo batik bat beste hizkuntzetan dauden kantak adituko dituztela. Euskal erreferenteak eskaini behar dizkiegu. Horregatik, betiko herri kantak ez ezik egungoak ere eskaintzea. Euskaraz estilo guztietako musika badugu!

INTERNETEKO BALIABIDEAK

Musika

www.badok.info

www.euskalkantak.blogspot.com.es

www.kantuan.eus

www.musica.com

Kultura kontsumoa

Arestian esan bezala, testuingurua kontuan hartu behar da, haur eta gazteek kontsumitzen duten gehiena euskara ez den beste hizkuntzetan dagoelako: gaztelaniaz, ingelesez... Horregatik, euskarazko produktuei lehentasuna eman



behar diegu (ekintza positiboa), haiei eskaintza hori badagoela ikusaraziz eta baliatzeko aukerak emanez.

INTERNETEKO BALIABIDEAK

Katalogoak

www.euskaragida.eus

www.elkar.eus

www.katalogoa.org

Ikus-entzunezkoak

www.eitb.eus/eu/kultura/zinema-euskaraz

YOUTUBE: marrazki bizidunak



5.5 AZKEN GOMENDIOAK

Zer egin zailtasunen aurrean

Partaideren batek euskaraz hitz egin nahi ez badu

- Ez hasi mila azalpen ematen: guk euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diegu. Besterik ez.
- Zergatik dio hori? Arrazoiak ulertzen saiatu. Seguruenik ez du euskara egoera eta bizipen positibo askorekin lotzen. Euskararekin duen harremana ez da estu eta sakona izanen.
- Lagundu euskara asko eta gustura erabiltzen. Horretarako elkarriketa asko sortu harekin eta errefortzu positiboak ere askotan ematen ahalegindu.

Partaideren batek euskaraz hitz egiteko zailtasunik baldin baditu

- Zailtasunak gainditzeko, euskaraz egin behar dute.
- Elkarriketa asko sortu haiekin.
- Elkarriketa horietan lagundu: ereduak eman esan behar duten hori nola esaten den entzun dezaten.
- Erabili gorputz adierazpidea eta mimika.
- Errefortzu positiboak askotan eman: euskaraz adierazteko ahalegina egin behar dute, beraz, baloratu ahalegin hori.

Euskaraz ulertzen ez duen norbait taldean baldin badugu

- Taldeari azalpenak euskaraz eman, eta ez dakienari gaztelaniaz. Aurretik, hari azaldu horrela jokatu dugula eta bera ere partaide izatea nahi dugula.
- Hizkuntza errutinak pixkanaka euskara hutsean eman. Dena jaso / recoged todo. Bi-hiru egunez segidan horrela egin eta gero, euskara hutsean esan dezakegu.
- Galdera itxiekin jokatu: Kanpora joanen gara? Kanpora joanen gara, ados? Ederki!
- Eta euskaraz ongi ulertzen ez duten horiei ere errefortzu positiboak eman.

Hezitzaileok gure artean gaztelaniarako joera baldin badugu

- Hitz egin eta adostu euskaraz ariko zaretela.
- Baimena eman elkarri zuzentzeko, baldin eta erdaraz ari bazarete.

- Erronka gisa planteatu dezakezue: Saiatuko gara? Sartuko dugu dinamika bat tarteko?
- Kontuan izan: eredu zarete. Jardueran zehar zuen artean ez baduzue euskaraz egiten, ez da erraza izanen ikasleen artean erabilera sustatzea.

Euskaraz aritzeko ziurtasunik ez badut

- Partaideentzat eredu zara: kosta egiten bazaizu ere, egizu euskaraz.
- Azalpenak aldeztu aurretik prestatu.
- Behar baduzu, ingurukoei laguntza eskatu.
- Aisialdiko jarduera garatzeko eta euskara sustatzeko hartu zaituzte, aurrera bada! Hezitzaile ona zara!

Haur-gaztetxoek gurasoei euskaraz

- Lehen hitza beti euskaraz.
- Seme-alabekin nola egiten duten ikusi, eta, euskaraz ari badira, zuek ere egin euskaraz beraiekin.
- Haurrekin eta gazteekin euskaraz ari garenez, haiei ere gauza batzuk euskaraz esan. Euskaraz erantzuten badigute edo ongi ulertzen badigute, segi euskaraz!
- Euskaraz ez dakitenekin, agurrak eta oinarritzko hizkuntza errutinak euskaraz esan.



6. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

Ekarri orri honetara zer egin nahi duzun euskara zure egunerokoan txertatzeko:

PLANIFIKAZIO FITXA	
DIAGNOSIA	
GUTXIENeko HELBURUA(K)	
IRAUPENA	MAIZTASUNA / INTENTSITATEA
TEKNIKAK / ESTRATEGIAK	
TRESNAK / JARDUERAK	
EBALUAZIOA	



2. ERANSKINA

Ekarri ondoko fitxa honetara hurrengoan hobetu beharrekoa:

EBALUAZIO FITXA
DESKRIBAPENA
OHARRAK

7. BIBLIOGRAFIA

ALDASORO, E. (2017). *Nafarroako hizkuntza ereduen bilakaera. Haur eta Lehen Hezkuntza, 1988–2017*. Dokumentu argitaragabea.

ANAUT, D.; ALDASORO, E.; MUGERTZA, E.; OLASAGARRE, Y. ETA RAMOS, R. (2017an begiratu). Motibazioa sustatzeko baliabideak.
Sarean: <http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/sarrera/>

KASARES, P. (2015) Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 94, 13–45.
Sarean: http://www.soziolinguistika.eus/files/Paula%20Kasares_1.pdf

KASARES, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
Sarean: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/77496.pdf

KASARES, P. (2010). 20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 101–123.
Sarean: <http://www.soziolinguistika.eus/files/Paula%20Kasares.%2020%20urteko%20nafar%20euskaldun%20hori....pdf>

NAFARROAKO GOBERNUA (2016) *VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016. Nafarroako Foru Komunitatea*. Txosten argitaragabea
Sarean: <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz.pdf>

NAFARROAKO GOBERNUA (2017) *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016–2019)*. Iruña: Nafarroako Gobernua, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua.
Sarean: [http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen%20I_%20Plan%20Estrategikoa%20\(2016-2019\)_%20Nafarroako%20Gobernua.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen%20I_%20Plan%20Estrategikoa%20(2016-2019)_%20Nafarroako%20Gobernua.pdf)









euskarabidea

Yanguas y Miranda kalea, 27
1. solairua · 31003 Iruña
Tel. 848 42 60 54
info@euskarabidea.es
www.euskarabidea.eus

